

Imanol Epelde Pagola

## PAGOETA MENDIZALE ELKARTEAK 50 URTE BETE DITU

*Pagoeta Mendizale Elkarte 50 urte mila pauso*

### ■ 36KO GERRA BAINO LEHEN: Club Mollarri Sport eta Pagoetako gurutzea


XX. mende hasierakoak dira Euskal Herriko lehen mendi-elkarteak. Mendietan ere gurutzeak orduantxe hasi ziren jartzen, baita artzainen txabolen ondoan lehen mendi-aterpeak eraikitzen ere. Ordukoak dira mendira eginiko lehen irteera antolatutak.

Zarautzen ere bazen mendizale elkarterik XX. mendeko bigarren hamarkadarako. 1924ko maiatzaren 18an Elgetan *Federación Vasco Navarra de Alpinismo* sortzeko bildu ziren Euskal Herriko 50etik gora elkarteren artean Zarauzko *Club Mollarri Sport* zegoen. Orduan egin ohi zen moduan, mendizaletasunarekin batera beste kirol jarduera batzuk ere antolatzen zituen Mollarrik.

Garai hartako ekintzarik sonatuena Pagoetan gurutzea jartzea izan zen. 1935. urtean Zarauzko Euzko Alderdi Jeltzaleak erabaki zuen Pagoetako gailurrean gurutze handi bat jartzea. Lekurik egokiena aukeratzera Pagoetara igo ziren Txomin Arregi Iturzaeta, Blas Zarauz Lizarralde, Pedro Azpiazua Goia eta Xanti Beristain Etxabe. Aukeraturiko Urruztume gailurrean eraiki eta 1935eko ekainaren 2an, Laurgaingo erretore on Pello Zubeldiak onetsi eta bedeinkatu zuen gurutzea, bertan meza ospaturik.

### ■ GERRAREN ONDOREN: Irrintzi taldea

1941. urtetik *FVNM* martxan bazegoen ere, herrietan mendizale elkarteak apurka-apurka sortuko ziren hurrengo urteetan. 1944an 21



■ Zarautzar mendizale koadrilla Pagoeta gailurrean 1959ko urriaren 12an



■ Jendetza bildu zen 1979ko ekaineko Pagoeta Egunean, borda inauguratu zela eta



■ Besaiden 2009ko irailean egindako irteeran

elkarte eta 901 federatu zeuden Euskal Herrian eta 1951rako 50 elkarte eta 3361 bazkide.

Pagoeta elkarte sortu aurretik, Zarautzen La Salleko anaiek bultzatu zuten mendizaletasuna modu eraginkorrean. Halaber, 1944an sorturiko *Zarauzko Kirol Elkarteak* ere bazuen mendi saila.

Hala ere, asko ziren antolatu gabeko mendi irteeretara joaten ziren mendizale zarautzarrak eta, haien artean, *Irrintzi* dantza taldearen bueltan zebiltzanak. Astean zehar eginiko dantza eta txistu saioez aparte, igandeetan mendira joaten ziren sarri.

### ■ HASTAPENAK: SORRERA, Pagoeta eguna

Mendira jende gutxi joaten zela iruditzen zitzaien Irrintzikoei. Mendizaletasuna ez ezik, euskaltzaletasuna ere bultzatzeko asmoz Zarauzko Kirol Elkarteko mendigoizaleen saila bere gain hartu eta *Grupo Alpino Pagoeta* (edo *Montañera Pagoeta*) sortu zuten 1958ko maiatzaren 7an. *Federación Española de Montañismok* 1958ko ekainaren 30ean onartu zuen elkarte.

Pagoeta mendizale elkarte gazte hartan urtero egiten zuten irteeren egutegia, goiz bueltak (Pagoeta, Santa Engrazia...) eta egun osoko irteerak tartekatuz (Hernio, Anboto, Aizkorri, Txindoki...).

Lehendik ere, Antiguoko luistar mendizaleek antolaturiko *Pagoeta Egunean*, kanpaldia izaten bazen ere, 1960an, Pagoetako gurutzeak 25 urte bete zituenean, lehenengo *Pagoeta Egun* ofiziala ospatu zen. Orduetik aurrera, herriko jai eta

mendizaleen elkartzeko egun bilakatu da ekainaren lehen igandeko ospakizun hau. Dena den, lehendik ere mendizale askok –batez ere euskaltzale eta abertzaleek– ekainaren lehen igandean Pagoetara igotzeko ohitura izaten zuten.

■ **1962-1979:**

Federazioan zor batzuk zituztela eta, taldea bertan behera gelditu eta 1961. urtea mendizale-talderik gabe joan zen. Herriko gazte batzuek, hala ere, S. M. Pagoeta berriro martxan jarri nahi eta aurreko batzordekideengana jo zuten laguntza eske, tartean Mariano Gerekarengana. Zor haiek Mariano Gerekak ordaindu zituen bere poltsikotik eta gazteekin batera hasi zen batzorde berrituan. Pare bat urte egin zituen eurekin batzordean, batez ere diru kontuak eramaten. Bi astetik behin, Zabalegieneko tabernan hasi ziren elkartzen, irteerak, ibilaldi neurtuak eta horrelakoak prestatu ez ezik, kudeaketa lanak egiteko ere.

Aldaketa garaiak zetozen Euskal Herrira. FVNMren azken lau urteetako krisia Pako Iriondok gainditu eta Federazioa berregituratu zen. Franco azkenetan zegoen eta hil aurreko eta ondorengo urteak korapilotsuak izan ziren zeharo.

Pagoeta Elkarteko bazkide kopuruak behera egin zuen nabarmen 1971rako. 1968a baino lehen hirurehunik gora bazkide baziren, 1971n 130 inguru baino ez zegoen. Federatu kopurua ez zen 30era iristen.

Hala ere, Pagoetaren ahaleginak ez zuen etenik izan. 1971n lehenbiziko aldiz erosi ahal izan zen proiektore bat. Herriko ikastetxeetako haurren artean mendizaletasuna bultzatu nahirik zenbait jarduera antolatu zen. Hamar irteera baino gehiago egin zituen taldeak, tartean bat Picos de Europa.

1974an Andeatoko euskal espedizio zalapartsuan ibilitako askok, Everestarako Tximist espedizioa antolatu zuten. Urte honetan Zabalegi taberna itxi zuten eta, garaiko egoera politiko nahasiaren adierazgarri, Pagoeta Egunean gurutzean ikurrina jarrita agertu zen.

Mendizaleak Zabalegieneko tabernatik lokal parrokialera joan ziren, Orape kaleko 2. zenbakira. Hemendik berehala Juantxo tabernara pasatu zen Pagoeta, handik Sanz Eneara, Sanz Eneatik Alfa zaharrera eta, azkenik, gaur egoitza duen lekura iristeko, Santa Marina kalean dagoen liburutegi zaharrera, alegia.

1974. urtean ohiko jardueraz gainera, umeentzako programa ere egin zuten, horretarako batzorde bat osaturik. Helduentzat bi irteera antolatu ziren hilean, baita pelikulak eta diapositiba emanaldiak ere. Haurrentzat, berriz, hilean irteera bat



■ Sierra de las Nieves mendilerroan (Málaga-Andaluzia) 2008ko Aste Santuan



■ Pagoeta Elkarteko mendizale gazteak, etorkizuneko harrobia



■ Pagoetako mendizaleak Zarauzko Musika Plazan Pagoeta M. Elkartearen 50. urteurrena ospatzen 2008ko abenduaren 14an

eta pelikula nahiz diapositiba emanaldi bat egitea aurreikusi zuten. Aipatzekoa da urte honetan Aralarreara egindako irteera batean hiru autobus bete zirela 133 lagunekin.

1976an berrikuntza modura eta iraunkortasuna lortu nahian, Pagoetako batzordeari bi urtez lanean aritzeko konpromisoa eskatu zitzaion. Eta esan liteke kontsolidazio urteak izan zirela hauek, helduentzako eta umeentzako aurreikusitako irteerak eta emanaldi guztiak burutu zituztelako. Diru premia larriak edukita ere, 1977an bazkide kopurua 230 inguruan mantentzea lortu zuten.

Bilerak eta lanak ziren urte haietako giroa. Baina fruitua ematen hasi ziren eta,

honela, 1978an 250 bazkide gora zeukan Pagoetak. Urte amaierako diru balantzea ere positiboa izan zen. 1966an sute batek hondatutako Pagoetako borda berreraiki zen 1979. urtean.

■ **80-90 HAMARKADAK:**

Bazkide kopurua 225era jaitsi bazen ere, gauza mordo egin zen urte hauetan: Kultur astea ateraz zen aurrera (hitzaldiak eta proiektzioak), Iñaki Goikoetxearen omenezko oroigarria jarri zen Pagoeta mendian, zuhaitzak landatu ziren Pagoetan umeen laguntzarekin, aurreikusitako irteera guztiak egin ziren, eskaladak, orientazioko eta lehen laguntzako ikastaroa, ibilaldi neurtua, haurrentzako ibilaldiak...

1980an Elkartearen barnean *Izadi Natur Taldea* sortu zen, gaur egun *Arkamurka Natur Taldea* dena. Pagoetak dituen 50 urteetatik 28 Arkamurka Natur Elkartearen ondoan egin ditu.

1981. urtean gaztetxoentzat ibilaldi neurtua antolatzen hasi zen, harrez geroztik urtez urte burutu dena, gaztetxo askoren parte hartzearekin. Ekarpen honi esker sortu zen *Haur Kultur Taldea*, 2007. urtean *Gurutxurto* bilakatuko zena. 1985ean Pagoetako gurutzearen 50. urteurrena ospatu zen.

1998an Pagoeta elkartek berrogei urte bete zituen. Bazkide kopurua 620 lagunera iritsi zen urte honetan, baina gazte gutxi agertzen zen irteerara eta taldearen etorkizuna ez zegoen argi. *Haur Kultur Taldearekin* gauzak hobeto lantzen saiatu ziren, tartean Pagoetan hainbeste lan egindako Joxean Iruretagoiena "Xurdo" zebilela aiprotxatuz. Urte honetan berean, Gaztetxoentzat ibilaldi neurtuaren egunean bazkaria egin zuten Pagoetaren 40. urteurrena ospatzeko. Urte honetan ere Pagoeta elkartean hainbeste lan eginiko Kepa Labiano hil zen, Olano mendian, taldeko irteera bat prestatzen ari zela.

■ **2000. URTETIK HONA:**

2003an aukeratu zuten Pagoetak emakume bat lehendakari

estreinakoz: Kontxi Iturbe. Ordutik aurrera elkarteko buruak emakumeak izan dira beti: 2006tik 2008ra Begoña Arriola eta, gaur egun, Idoia Larrañaga.

2004ko Pagoeta Eguna berezia izan zen, lehen mendi lasterketa antolatu zelako Markel Azkueren oroituz. Pagoeta elkartek hiru urte jarraian antolatu zuen arren, 2007an Zarauzko Kirol Elkartek hartu zuen bere kargu.

2008a ospakizun urtea izan zen, Pagoetak 50 urte bete zitueneko. Horrekin loturik, 2009an Euskal Mendizale Federazioak urtero antolatzen duen galako XIII. ekitaldia Zarautzen egin zen Pagoeta Elkartek antolatuta. □

ARGAZIAK KLUBAREN ARTXIBOAN